Getxo
UDALA • AYUNTAMIENTO

Fueros, 6
48992 GETXO (Bizkaia)
Tf.: 94 466 00 00
Faxa: 94 466 01 75
http://www.getxo.net

| GETXOKO PLANGINTZAKO AHOLKU BATZORDEAREN 2015eko APIRILAREN 29KO BATZARRAREN AKTA. | ACTA DEL CONSEJO ASESOR DE PLANEAMIENTO DE GETXO CORRESPONDIENTE A LA SESIÓN CELEBRADA EL DÍA 29 DE ABRIL DE 2015. |
|---|---|
| **BILDUTAKOAK:** | **SEÑORES ASISTENTES:** |
| **PRESIDENTEA:** | **PRESIDENTE:** |

IMANOL LANDA JAUREGI jauna

| **PRESIDENTEORDEAK:** | **VICEPRESIDENTES:** |
|---|---|

JOSEBA ARREGI MARTINEZ jauna
KELTSE EIGUREN ALBERDI andrea

| **BATZARKIDEAK:** | **V O C A L E S:** |
|---|---|

AITOR VEGUILLAS VALENCIANO jauna (PSE-EE)
CHRISTIAN REINICKE URRUTIKOETXEA jauna (BILDU)
IGNACIO GAMERO DELGADO jauna (PP)
AITOR PINEDO GONZÁLEZ jauna (EAJ-PNV)
JESUS URRUTIA OLEAGA jauna (ANDRA MARI GURE LURRA)
JOSE RAMON ESPARZA GOICOECHEA jauna (ASOCIACION URIBE-COSTA)
IÑIGO ERDOZAIN GONZÁLEZ jauna (KOSMOPOLIS, ASOCIACION P.R.C.)
ROSA Mª ORTIZ PEREIRO andrea (CLUB REMO RASPAS)

| **IDAZKARIA:** | **SECRETARIA:** |
|---|---|

ISABEL PERAL AGUIRREGOITIA andrea

Udal Bulego Teknikoko bileren aretoan, "Santa Clara" lursailean, 2015eko apirilaren 29ko 17:00etan, Getxoko Udal Plangintzarako Aholku Kontseilu gisa goiburuan aipatutakoak bildu dira, aurretiko deialdiaren gai-zerrendako gaiak aztertzeko.

En la sala de reuniones de la Oficina Técnica Municipal, finca "Santa Clara", siendo las 17:00 horas del día 29 de Abril de 2.015, se reúnen las personas relacionadas al encabezamiento, como miembros del Consejo Asesor del Planeamiento Municipal de Getxo, para tratar los asuntos incluidos en el Orden del Día de la previa convocatoria.

Era berean, Argiñe Encinas Cano andrea (Hiri Antolamenduko Plan Orokorra Errebisatzeko Bulegoko Arkitektoa), eta Antón Agirregoitia Aretxabaleta jauna ere (Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren Idazle Taldeko Arkitektoa) bildu dira.

Acuden, igualmente, Dña. Argiñe Encinas Cano, Arquitecta de la Oficina para la Revisión del Plan General de Ordenación Urbana, y D. Antón Agirregoitia Aretxabaleta, Arquitecto del Equipo Redactor de la Revisión del Plan General de Ordenación Urbana.

Gai-zerrendako gaiak aztertzen hasi aurretik, Alkate jaunak bertaratuengana jo du herritarren partaidetzako foro honetan egindako ahalegina, lana eta konpromisoa bihotz bihotzez eskertzeko. Triste agertu da, haren lana ez delako behar adina ezagutarazi, balioan jarri behar dena, eta komunikazioa hobetzeko beharra dagoela ohartarazi du herritarren partaidetza-taldeen lana ezagutarazteko.

Antes de comenzar con los asuntos incluídos en el Orden del Día, el Sr. Alcalde se dirige a los presentes para agradecer muy sinceramente su esfuerzo, dedicación y compromiso en este foro de participación ciudadana. Lamenta la insuficiente visibilización de su tarea, que ha de ponerse en valor, y advierte la necesidad de mejorar la comunicación para dar a conocer el trabajo de los grupos de participación ciudadana.

**4.- 2015EKO MARTXOAREN 24AN EGINDAKO BATZARRAREN AKTA ONESTEKO PROPOSAMENA.**

**4.- PROPUESTA DE APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL ACTA CORRESPONDIENTE A LA SESIÓN CELEBRADA EL 24 DE MARZO DE 2.015.**

2015eko martxoaren 24an egindako batzarrari dagokion akta onartu da, eta Reinicke eta Urrutia jaunek haren gaineko zehaztapenak egin dituzte.

Se aprueba el Acta correspondiente a la sesión celebrada el 24 de Marzo de 2.015, realizando los Sres. Reinicke y Urrutia matizaciones a la misma.

Reinicke jaunaren aburuz, 2. gaiari buruz idatzitako azken paragrafoak honako hau jaso behar du: "...Herri-kontsulta bat egitea Lantaldeak proposatu du" eta ez "...herri-kontsulta bat egiteko aukera Lantaldeak proposatu du".

El Sr. Reinicke entiende que el último párrafo de los redactados en relación con el asunto nº 2 debe recoger "... ha sido propuesta por el Lantalde la celebración de una consulta popular" y no "... ha sido propuesta por el Lantalde la posibilidad de celebrar una consulta popular".

Urrutia jaunak "Andra Mari Gure Lurra"-ren jarrera argitu nahi du akta honi erantsitako idatziaren bidez.

El Sr. Urrutia quiere aclarar el posicionamiento de "Andra Mari Gure Lurra" mediante el escrito que se anexa

Getxo
UDALA • AYUNTAMIENTO

Fueros, 6
48992 GETXO (Bizkaia)
Tf.: 94 466 00 00
Faxa: 94 466 01 75
http://www.getxo.net

a este acta.

**5.- GETXOKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORREKO BERRIKUSKETA PROZESUAREN BARRUAN III. FASEARI BURUZKO KONTSULTA: ERABAKIAK**

GETXOKO HIRI-ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKORRA BERRIKUSTEKO jarraitutako prozesuaren berri jaso da.

GERTAERA.- GETXOKO HIRI-ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKORRA BERRIKUSTEKO prozesuari lotutako herritarren partaidetza-programak prozesuak jarraitu beharreko faseak garatzen ditu, haietako bakoitzean Plangintzako Aholku Batzordearen esku-hartzeak zehaztuz.

GERTAERA.- Hala, "Aurrerapena" izeneko III. faseari dagokionez, Plangintzako Aholku Batzordeak Lantaldearen atzetik esku hartu behar du, idazle-taldeak egindako lanei eta Lantalderen ondorioei dagokienez txostena egiteko.

GERTAERA.- III. fase horren barnean, Plangintzako Aholku Batzordeak 2015-03-24an aurretiazko azalpen-bilera bat egin zuen, eta bertan Lantaldeak bere lana garatzeko erabilitako dokumentu teknikoak azaldu ziren, bai eta handik ateratako ondorioak ere.

OINARRIA.- Udalaren Plangintzako Aholku Batzordea tokiko organo aholku-emailea da eta kontzertazio sozialeko funtzioak betetzeko erabakitzailea hirigintza-planak egin, izapidetu eta

**5.- CONSULTA ACERCA DE LA FASE III DEL PROCESO DE REVISION DEL PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA DE GETXO: JORNADA DELIBERATIVA**

Habida cuenta del proceso que se sigue para la REVISIÓN DEL PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA DE GETXO; y,

RESULTANDO.- Que, el Programa de Participación Ciudadana vinculado al proceso de REVISIÓN DEL PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA DE GETXO desarrolla las distintas fases por las que ha de circular el proceso, con especificación de las intervenciones del Consejo Asesor de Planeamiento en cada una de ellas.

RESULTANDO.- Que, así, y en lo que se refiere a la Fase III, denominada "Avance", el Consejo Asesor de Planeamiento ha de intervenir, tras el Lantalde, para emitir informe en relación con los trabajos del Equipo Redactor y las conclusiones del Lantalde.

RESULTANDO.- Que, dentro de esta Fase III, el Consejo Asesor de Planeamiento ha celebrado una reunión explicativa previa el 24.03.2015, en la han sido expuestos los documentos técnicos sobre los que el Lantalde ha desarrollado su trabajo, así como las conclusiones del mismo.

CONSIDERANDO.- Que, el Consejo Asesor del Planeamiento Municipal es un órgano local de carácter consultivo y deliberante para el cumplimiento de las funciones de concertación social en

onartzeko prozedurari dagokionez; eta nahitaez izan behar dute plan orokorrak behin betikoz onartzeko eskumena – propioa edo eskuordetutakoa– duten udalerriek (ekainaren 30eko 2/2006 Legearen, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoaren, 109.1 artikulua).

relación con el procedimiento de formulación, tramitación y aprobación de los planes urbanísticos, de existencia obligatoria en los municipios que tengan la competencia, propia o delegada, para la aprobación definitiva de planes generales (Art. 109.1 de la LEY 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo).

OINARRIA.- Getxoko Udalaren Plangintzako Aholku Batzordea udaleko, eragile sozial, ekonomiko eta ingurumenekoen informazio, eztabaida eta adostasuneko espazio gisa osatzen da hirigintzako plangintzaren gainean. Getxoko Udalaren partaidetzako organo osagarria da, eta honako helburu hau du: herritarrek, oro har, eta herritarren elkarte nahiz kolektiboek udalerriko gobernuko organoek erabakiak hartzeko orduan lagundu ahal dezaten.

CONSIDERANDO.- Que, el Consejo Asesor de Planeamiento Urbanístico del municipio de Getxo se constituye como espacio de información, debate, consenso del Ayuntamiento, de los agentes sociales, económicos y ambientales al planeamiento urbanístico. Es un órgano complementario de participación del Ayuntamiento de Getxo con la finalidad de que la ciudadanía en general y las Asociaciones y Colectivos Ciudadanos puedan cooperar a la conformación de las decisiones de los Órganos de Gobierno del Municipio.

OINARRIA.- Getxoko Udalaren Hirigintza Plangintzako Aholku Batzordearen udal-araudi erregulatzaile bat dago eta, gainera, GETXOKO HIRI-ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKORRA BERRIKUSTEKO prozesuari lotutako herritarren partaidetza-programa bat, haren zeregina prozesu horretan indartzen duena.

CONSIDERANDO.- Que, se cuenta con un Reglamento Municipal Regulador del Consejo Asesor de Planeamiento Urbanístico del municipio de Getxo y, además, con un Programa de Participación Ciudadana vinculado al proceso de REVISIÓN DEL PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA DE GETXO que refuerza su papel en dicho proceso.

IKUSITA.- 7/85 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubideari buruzko Oinarriak arautzen dituena; 2/2.006 Legea, ekainaren 30eakoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa; Getxoko Udalaren Hirigintza Plangintzako Aholku Batzordearen udal-araudi erregulatzailea; GETXOKO HIRI-ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKORRA BERRIKUSTEKO prozesuari lotutako herritarren partaidetza-programa eta baterako

VISTOS.- Ley 7/85, de 2 de Abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local; Ley 2/2.006, de 30 de Junio, de Suelo y Urbanismo; Reglamento Municipal Regulador del Consejo Asesor de Planeamiento Urbanístico del municipio de Getxo; Programa de Participación Ciudadana vinculado al proceso de REVISIÓN DEL PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA DE

Fueros, 6
48992 GETXO (Bizkaia)
Tf.: 94 466 00 00
Faxa: 94 466 01 75
http://www.getxo.net

gainerako legeria.

GETXO y demás legislación concordante

Getxoko Udalaren Hirigintza Plangintzako Aholku Batzordeak, "lehen" idatz-zatiari dagokionez, Reinicke (BILDU) eta Gamero (PP) jaunen abstentzioekin eta gainerakoen aldeko botoarekin, abstentzioko botoak azaldu ostean transkribatuko den erabakia hartu du.

El Consejo Asesor del Planeamiento Urbanístico del municipio de Getxo, con las abstenciones, en lo que se refiere al apartado "primero", de los Sres. Reinicke (BILDU) y Gamero (PP), y el voto favorable de los restantes miembros, adopta el acuerdo que se transcribirá tras explicar los votos de abstención.

Reinicke jauna (BILDU) abstenitu egin da, haren iritziz, partaidetza-prozesuak hobetu daitezkeen alderdiak dituelako. Hala ere, prozedura hori, oro har, oso positiboki baloratu du, Lantaldeko kideek egindako lana bereziki azpimarratuz, herritarrek banaka nahiz elkarteetako ordezkariek egindakoa.

El Sr. Reinicke (BILDU) se abstiene porque, a su juicio, el proceso participativo, que en términos generales valora muy positivamente, destacando especialmente la labor de los miembros del Lantalde, tanto la de los ciudadanos individuales como la de los representantes de asociaciones, presenta aspectos que pueden ser mejorados.

Gamero jauna (PP), berriz, abstentzioaren alde agertu da berrikusteko prozesua gehiegi atzeratzen ari dela uste baitu. Hori bai, Lantaldeko kide guztiei eskerrak eman nahi dizkie, iritzi guztiak aztertu behar direla ulertuz, eta esker on hori teknikariei ere zabaldu die.

El Sr. Gamero (PP), por su parte, se manifiesta a favor de la abstención porque entiende que el proceso de revisión se está dilatando en exceso. Eso sí, quiere expresar su agredecimiento a los miembros del Lantalde, entendiendo que todas las opiniones han de ser valoradas, y extiende tal agradecimiento a los técnicos.

ERABAKIA:

ACUERDO:

LEHENA.- "Aurrerapena" osatzen duten dokumentuak egiteko jarraitutako prozesuaren aldeko txostena egitea, eta udalaren Hirigintza Plangintzako Aholku Batzordearen aurrean aurkeztu direnak: idazte-taldeak eta Hiri Antolamendurako Plan Orokorra Berrikusteko Bulegoak idatzitako dokumentuak eta Lantaldearen ekarpenak.

PRIMERO.- Informar favorablemente el proceso seguido para la elaboración de los documentos que integran el "Avance" y que han sido presentados ante el Consejo Asesor de Planeamiento municipal: documentos redactados por el Equipo Redactor y la Oficina para la Revisión del Plan General de Ordenación Urbana y aportaciones del Lantalde.

BIGARRENA.- "Aurrerapen"-aren aurrean ondorengo oharrak eta iradokizunak

SEGUNDO.- Realizar frente al "Avance" las siguientes acotaciones y sugerencias

egitea dokumentu horretan sartzeko:

IGNACIO GAMERO DELGADO jauna (PP): Jarrera Aurrerapenaren aurrean hartuko da.

CHRISTIAN REINICKE URRUTIKOETXEA jauna (BILDU): "A1" eta "A2" proposamenekin identifikatzen dira. Biztanle-jaitsierarekin bat datoz, eta irizten dute ahalegin bat egin ahalko zela bi proposamenek aplikagarria den araudia urra ez dezaten. A2 proposamenarekin etxebizitza-parke publikoa sortu ahal izango zen.
Gainerako aukerak atzera bota dira.
Andra Mariko "hiriguneak" zabaltzearen alde ez dira agertu. Alderantziz.

Martiturriko enpresa-parkearekin T1, T2 eta T3 modura aurkeztutako proposamenak teknikoki zuzenak izan arren, haien iritziz, gaur egun urbanizagarritzat jotako lurzorua ez okupatzeko Lantaldearen irizpidearen kontra doaz. Enpresa-parkearen beharra egungo hiri-lurzoruarekin bete daiteke (Iturribarri, adibidez).
Herri-kontsulta oso aukera onargarria da, eta ezin da baztertu atzoko Udalbatzak agertutako jarreragatik. Beti plantea daiteke berriz.

AITOR PINEDO GONZÁLEZ jauna (EAJ-PNV): Aukera guztiak legezkoak direla uste du.

AITOR VEGUILLAS VALENCIANO jauna (PSE-EE): Aukera guztiak legezkoak direla uste du.

IÑIGO ERDOZAIN GONZÁLEZ jauna (KOSMOPOLIS, P.R.C. ELKARTEA): Beren jarreratik hurbilen dagoen aukera "L3"

para su integración en dicho documento:

D. IGNACIO GAMERO DELGADO (PP): El posicionamiento se realizará ante el Avance.

D. CHRISTIAN REINICKE URRUTIKOETXEA (BILDU): se identifican con las propuestas "A1" y "A2". Las ven congruentes con el decrecimiento poblacional y entienden que podría hacerse un esfuerzo para que ambas propuestas no conculcaran la normativa aplicable. La A2 podría permitir la creación de un parque de viviendas público.
Se rechazan las restantes alternativas.
No se muestran partidarios de la ampliación de los "núcleos urbanos" de Andra Mari. Más bien al contrario.
Las propuestas presentadas como T1, T2 y T3, con el parque empresarial de Martiturri, aunque técnicamente sean correctas, contradicen, a su entender, el criterio del Lantalde de no ocupar el suelo considerado hoy como urbanizable.
Las necesidad de parque empresarial puede cubrirse con el suelo urbano actual (por ejemplo, Iturribarri).
La consulta popular es una opción muy válida que no debe descartarse por el posicionamiento del Pleno de ayer. Siempre puede replantearse.

D. AITOR PINEDO GONZÁLEZ (EAJ-PNV): Entiende que todas las alternativas son legítimas.

D. AITOR VEGUILLAS VALENCIANO (PSE-EE): Considera todas las alternativas legítimas.

D. IÑIGO ERDOZAIN GONZÁLEZ (KOSMOPOLIS, ASOCIACION P.R.C.): Entienden que la alternativa que más se

Getxo
UDALA • AYUNTAMIENTO

Euskadi 2006

Fueros, 6
48992 GETXO (Bizkaia)
Tf.: 94 466 00 00
Faxa: 94 466 01 75
http://www.getxo.net

modura identifikatzen dena dela uste dute, ñabardurekin, "T2"-ra hurbilduz.
Dentsitateari dagokionez, oro har "ertain-handia" eran ulertuta, Andra Marin moderatu beharko zen.
Egungo egikaritze-unitateak berriz dentsifikatzearen alde agertu da Andra Mariko dentsitate txikiagoak konpentsatze aldera.

acerca a su posicionamiento es la que se identifica como "L3", matizada, aproximándose a la "T2".
Respecto a la densidad, entendida como "media-alta" en términos globales, debería moderarse en Andra Mari.
Se muestra partidario de redensificar las actuales unidades de ejecución para compensar menores densidades en Andra Mari.

JESUS URRUTIA OLEAGA jauna (ANDRA MARI GURE LURRA): "L3"-aren alde egin dute, baina jadanik aipatutako ñabardurekin, "T2"-rako hurbilketa batekin.

D. JESUS URRUTIA OLEAGA (ANDRA MARI GURE LURRA): Se decantan a favor de la "L3", aunque con las matizaciones ya apuntadas, con un acercamiento a la "T2".

JOSE RAMON ESPARZA GOICOECHEA jauna (URIBE-KOSTA ELKARTEA): Beren jarreratik hurbilen dagoen aukera "L3" dela uste dute, perfektua izan ez arren. "L3" "A5"-era hurbilduz.

D. JOSE RAMON ESPARZA GOICOECHEA (ASOCIACION URIBE-COSTA): Consideran que la alternativa "L3" es la más próxima a su posicionamiento, aunque no es perfecta. "L3" acercándose a "A5".

ROSA Mª ORTIZ PEREIRO andrea (RASPAS ARRAUN TALDEA): Aukera guztiak legezkoak iruditzen zaizkio.

DÑA. ROSA Mª ORTIZ PEREIRO (CLUB REMO RASPAS): Todas las alternativas le parecen legítimas.

**6.- GALDERETARAKO ETA AZALPENETARAKO TXANDA.**

Batzarrean zehar aurkeztutako zalantza guztiak argitu direnez, ez da inolako argibide edo azalpen gehigarririk eskatu.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, Presidentetzak 18:20an batzarra amaitutzat eman du.

**6.- TURNO DE PREGUNTAS Y ACLARACIONES.**

Como a lo largo de la sesión se han ido resolviendo las dudas que se han ido presentando, no se solicitan aclaraciones ni explicaciones adicionales.

Sin más asuntos que tratar, por orden de la Presidencia se dio por finalizada la sesión siendo las 18:20 horas.

PRESIDENTEA/EL PRESIDENTE

IDAZKARIA/LA SECRETARIA

ANEXO AL ACTA DEL CONSEJO ASESOR DE PLANEAMIENTO DE GETXO CORRESPONDIENTE A LA SESIÓN DE 29.04.2015ESCRITO PRESENTADO POR D. JESUS URRUTIA OLEAGA, POR ANDAR MARI GURE LURRA, COMO MATIZACIÓN AL ACTA DE LA SESIÓN ANTERIOR.

KALTEA LEPOAN DAGIANAK BIZARRA
Getxo
UDALA • AYUNTAMIENTO

Fueros, 6
48992 GETXO (Bizkaia)
Tf.: 94 466 00 00
Faxa: 94 466 01 75
http://www.getxo.net

Q Euskadi 2006

MATIZACIONES DE "ANDRA MARI GURE LURRA" PARA AÑADIR AL ACTA DEL CONSEJO ASESOR DE LA REVISIÓN DEL PGOU DE GETXO, DE LA REUNIÓN CELEBRADA EL 24 DE MARZO DE 2015

• DE ACUERDO CON LA PROPUESTA L3, EXCEPTO LAS MATIZACIONES INCLUIDAS EN ESTA PÁGINA

---

Nosotros L3 → SALVO NUESTRA APORTAC. → ULTIMA REUN. del Lantalde y

DE ACUERDO CON LA L3 EN LA PARTE QUE ESTAMOS DE ACUERDO

(1) Aplic. declar. instit. → interpret. inequívoca → falta la concreción
(2) Ubicac. Parque empresarial →
(3) nº VVDAS O en Andra Mari → las que puedan salir de la "regulariz. de nucleos" en Aplic. de la declar. + llevar la edific. min 0'14 a 0'4??
[illegible] AC. (4) Nos referimos a ambitos contiguos a los nucleos existentes o los "POCOS" nuevos) y a ámbitos entre nucleos proximos

S MENORES y MENOR Nº DE VVDAS ← NUESTRO PLANO A5 — A LA VEZ SON CONTIGUOS

Pudiendo constituir 2 zonas → NUCLEOS CARRET. ZTEXO → NUCLEOS PERUNE
"conectados" y a su vez "conectados" con la estación de Ibarbengoa

RECOGER → la interven. del 24-3-2015 mía del Lantalde
(→ ~~aporta~~ añadida en la L3 y el apartado contiguo incluido en la L3 bajo el titulo "Algunos criterios de la antigua propuesta A5"
→ RECOGER TBIEN MI APORTAC. en referencia a la ubicación de ningún proyecto de Parque Empresarial)

Tbien desacuerdo con la L3 → donde el portavoz (PNV) dijo "No clasificar mas suelo como urbaniz. y menos todavía como suelo urbano"

Tbien desacuerdo en su referencia (respecto a su ubicación ya hemos dicho → responsabil. → de ubic. eq. redactor) a su referencia de coincidencia con la L2 → "barajan clasificar primero (el ambito que proponen → Martiturri) como suelo no urbaniz. y luego que lo compre el Ayunt. → → Reserva de Suelo → para ubicar el Parque empresarial

*Esto significa no tener en cuenta los derechos de los propiet. de los terrenos

El interes general {Ley del suelo, PTP} puede defenderse sin "aplastar" derechos particulares → y tal vez manteniendo derechos edificat. en otro ámbito

no sería descabellado plantear la posibil. de añadir en las 2 zonas aludidas anteriormente ← Nucleos carret. Ztoetxe, ← Nucleos Perune (algún ambito o algunos ambitos) siempre contiguo a esas 2 zonas COMO URBANIZ.

AMBITOS CLASIFICADOS COMO URBANIZABLES DE S en cada caso no muy grande (pocos propietarios) para que la viabilidad de la gestion del consiguiente Plan Parcial sea mas factible

En la regulariz. de nucleos ya mencionada (Aplicando la declaracion institucional y concretando) clasificadas como urbanas y y la edificab. min ?

En los ambitos referidos tbien anteriormente como urbanizables las densid. edificatorias deberán variar desde la baja densidad en zonas próximas a los actuales residentes (en cumplimiento de la Declar. Inst. → "... Cohesionadas e integradas ...") hasta densidades medias a medida que se alejan (los ambitos de ubicación de nuevas viviendas) de las casas de los residentes

ASOCIACION DE VECINOS
ANDRA MARI GURE LURRA
48993 - GETXO

29-ABRIL-2015